

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

9/2019 Mozioa, otsailaren 4koa, azaroaren 30ean Arabako unibertsitate campusean ikasle batek jasandako erasoari buruz

Arabako Batzar Nagusi hauetako Lehendakaritza, Berdintasun eta Giza Eskubideen I. Batzordeak, 2019ko otsailaren 4an egindako bilkuran, honako mozioa onetsi zuen:

9/2019 Mozioa, otsailaren 4koa, azaroaren 30ean Arabako unibertsitate campusean ikasle batek jasandako erasoari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek euren gaitzespen etiko eta politiko irmoena adierazten dute EHUko ikasle batek bere ideia politikoengatik jasan zuen eraso dela-eta; izan ere, eraso horrek gure herrian, zorionez, gairiditutzat ematen ditugun diren garaietara garamatza. Halaber, euren babes eta elkartasun osoa adierazten diote kaltetutako pertsonari eta laster sendatzea espero dute.

2. Arabako Batzar Nagusiek adierazten dute demokraziaren eta denon giza eskubideen aldeko kultura sakon bat sendotzea eta sustatzea dela jatorri, etnia, kultura, sexu-orientazio, genero-identitate edo idea politikoengatik beste pertsona batzuen aurkako bazterketa eta gorrotoa sustatzen duten mugimendu eta ideologiaren intolerantziaren kontra borrokatzeko eta geure burua babesteko modurik onena.

3. Arabako Batzar Nagusiek konpromisoa hartzen dute bizikidetzeta eta ideia guztien errespetuaren alde borrokatzen jarraitzeko, baldin eta ideia horiek beren helburuak lortzeko indarkeriaren apologia egiten ez badute; uste dute funtsezkoa dela lan egitea gizartearen baitan eztabaida politikoa behar bezala garatzearen alde, inolako larderia, mehatxu eta erasorik gabe. Horrenbestez, gure babesa adierazten diegu beren ideiak betidanik hitzaren bidez defendatu dituzten pertsonari, hori delako gure aburuz pertsonen artean eztabaidatzeko era bakarra.

4. Arabako Batzar Nagusiek, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren harira, konpromisoa hartzen dute euskal gizarte bidezko, demokratiko eta solidario baten alde lan egiten jarraitzeko; salbuespen barik denon eskubideak babestuko dituen gizarte baten alde hain zuzen ere, zeinean pertsona guztiek, edozein dela ere euren jatorria, kultura, sexu-orientazioa, genero-identitatea eta ideia politikoak, modu askean adierazi ahal izango baitira, muga bakarra direla printzipio demokratikoak eta giza eskubideak.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 4a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA